## Hitzaurrea

*Bidebarrieta*, Bilboko Udalaren Kultura eta Hezkuntza Sailak argitaratzen duen Humanitate eta Gizarte Zientzien aldizkaria 1996an sortu zen eta 20. zenbakira heldu da. Urteurren hori aprobetxatuz, aldizkariak bere formatua eguneratu du eta bertako edukiak aztertzen dituzten pertsona guztien gustukoa izatea espero dugu.

Aldizkariaren zuzendaria, Joseba Agirreazkuenaga da, Gaur Egungo Historiako katedraduna EHUn, eta gure erreferentzia unibertsitario nagusi bietako (EHU eta Deustu) irakasle ospetsuk osatutako Erredakzio Batzordea koordinatzen du. Agirreazkuenaga jaunaren zuzendaritzapean, *Bidebarrieta* aldizkaria Bilboko uriarekin eta bere metropoli-barrutiarekin lotutako ikerketa historiko, literario, artistiko eta bibliografikoaren erreferentzia bihurtu da.

Aldizkariak gure historian asko ezagutzen ez diren aldeei buruzko ikuspegi berriak, txostenak eta ikerketak jaso ditu, beti ere zehaztasun historikoa erabilita. Denboraren joan-etorrian ilunduta geratu diren pertsonak edo erakundeak aztertketarako gai izan dira eta iraganean izan dugun errealitate kulturalaren arloei buruzko lan interesgarriak argitaratu dira. Era berean, ez dira ahaztu Bilbon gertatutako gatazka belikoak ezagutzeko eta uriak eta herritarrek izandako ondorioak zeintzuk izan ziren jakiteko ekarpen argigarriak

*Bidebarrieta* aldizkariaren hogeigarren aleak gure historian gutxi ezagutzen den etapa bati dago dedikatuta, ia modu monografikoan: inbasio napoleonikoa eta horren aurreko urteak. Jen-

## Prólogo

*Bidebarrieta*, la revista de Humanidades y Ciencias Sociales que edita el Área de Cultura y Educación del Ayuntamiento de Bilbao, alcanza su número 20 desde su fundación en el año 1996. Aprovechando esta pequeña efeméride, la publicación ha optado por una puesta al día en cuanto a su formato, que esperamos sea del agrado de cuantas personas siguen habitualmente sus contenidos.

Bajo la dirección del catedrático en Historia Contemporánea (UPV/EHU) Joseba Agirreazkuenaga, que coordina un Consejo de Redacción integrado por una quincena de docentes de prestigio en nuestras dos principales referencias universitarias –UPV/EHU y Deusto–, *Bidebarrieta* se ha convertido a lo largo de más de una década en una referencia de la investigación histórica, literaria, artística y bibliográfica relativa a la Villa de Bilbao y a su área metropolitana.

La Revista ha tenido el mérito de recoger –siempre bajo el prisma del rigor histórico– nuevas perspectivas, informes y estudios sobre aspectos poco conocidos de nuestra historia. Personas o instituciones cuyo protagonismo había quedado oscurecido por el paso del tiempo han sido objeto de análisis y también se han abordado interesantes trabajos sobre aspectos de nuestra realidad cultural en el pasado, sin olvidar relevantes aportaciones al conocimiento de los conflictos bélicos que se han desarrollado con Bilbao como escenario y de sus repercusiones para la Villa y sus habitantes.

Esta vigésima entrega de *Bidebarrieta* está dedicada de manera casi monográfica a una etapa muy

dearen irudimenean, garai horretan jeneral kortsoaren ikonoa da nagusi, haren eragin geldiezina eta Waterloo-ko hondamendia. Hala ere, elementu askoz garrantzitsuagoa dauka Europaren etorkizunerako inbasioen eta batailen epika baino. Antzinako Erregimenaren eta Frantziako Iraultzan sortutako ideia berrien arteko gatazka da. Izan ere, gatazka hori XIX. mendearen amaieraraino luzatu zen gure artean eta karlistada biak izan ziren bere ondoriorik dramatikoenak.

Lehen modernitatearen desafioen aurrean izandako jarrerak eta erantzunak dira *Bidebarrieta* aldizkariaren ale honetako 11 lanen aztergaiak: XVIII. mendearen amaierako Bilboren deskribapena, *Zamakolada* herri-errebolta, Frantziako militarren okupazioa edo horren ondorioak bertoko artean eta kulturan. Horrez gain, askoz modernoagoa den ikerketa bat, Bilbon 1979tik eta 1986ra bitartean garatu zen CVA talde artistikoaren ibilbideari buruzkoa.

Humanitateei buruzko gure aldizkari honen ale berriak ia 200 orrialde dauzka. Bertan daude gure iraganaren ezagutzan sakontzeko ekarpen interesgarriak eta seguru nago ez dietela *Bidebarrietak*o edukiak ezagutzen eta maitatzen dituztenei hutsik egingo. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet pertsona hauei: Agirrreazkuenaga irakasleari eta bere taldeari, BBKri babes eskuzabalagatik, eta argitaratu diren lanen idazketan lagundu duten guztiei.

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
Bilboko Udalaren Kultura eta Hezkuntza
Saileko zinegotzia

poco divulgada de nuestra historia, como es la de la invasión napoleónica y los años que la precedieron. Una época dominada en el imaginario colectivo por el icono del general corso, su imparable ascendencia y su debacle en Waterloo, pero que encierra un elemento mucho más relevante para el futuro de Europa que la épica de invasiones y batallas. Se trata de la pugna entre el Antiguo Régimen y las nuevas ideas surgidas en la Revolución Francesa, un conflicto que entre nosotros se prolongó hasta prácticamente las postrimerías del siglo XIX y tuvo en las dos guerras carlistas sus más dramáticas consecuencias.

Las actitudes y respuestas ante los retos de la primera modernidad constituyen el objeto de estudio de 11 trabajos que presenta este nuevo número de *Bidebarrieta* y que abarcan la descripción de lo que era Bilbao a finales del siglo XVIII, la revuelta popular de la *Zamacolada*, la ocupación militar francesa o sus repercusiones en la esfera del arte y la cultura locales. Junto a ello, un estudio mucho más actual, centrado en torno a la trayectoria del colectivo artístico CVA, que se desarrolló en Bilbao entre los años 1979 y 1986.

Las cerca de 200 densas páginas de esta nueva entrega de nuestra Revista de Humanidades contienen interesantes aportaciones para profundizar en el conocimiento de nuestro pasado y estoy segura de que no van a defraudar a quienes conocen y aprecian los contenidos de *Bidebarrieta*. No me queda sino finalizar con el capítulo de agradecimientos: al profesor Agirreazkuenaga y su equipo, a BBK por su generoso patrocinio y a cuantas personas han colaborado en la redacción de los trabajos que aparecen publicados.

**Ibone Bengoetxea Otaolea**
Concejala del Área de Cultura y Educación del
Ayuntamiento de Bilbao